




LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2023

ANTOLATZAILEAK
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK
IMPULSAN



EDUKIA



Zer da Beldur Barik jarrera?	3
Lanen ezaugarri eta baldintzak	4
Balorazio irizpideak	5
Nork har dezakete parte	6
Nola aurkeztu lanak lehiaketara	7
Lanak aurkezteko epeak	8
Sariak	9
Lehiaketaren ebazpena	10
Lege-alderdiak	11
Antolaketa	13
1. eranskina	14
2. eranskina	15
3. Eranskina: Prozesu-fitxa	16



ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?

Beldur Barik jarrerak "bere bikote edo bikote-ohiaren eskuz indarkeria fisikoa pairatzen duen emakume heldua"ren estereotipoa gainditzea eskatzen du eta **neska gazteek euren bizitzen esparru guztietan sufritzen dituzten indarkeria sexistaren manifestazio anitzak ikusarazteko lan egiten du**, hauek euren eguneroko testuinguru eta esparru guztietan hautematen den desorekaren ondorio direlarik.

Beldur Barik jarrera **gazteek sufritzen duten indarkeria matxistaren beste manifestazio batzuk (LGTBIQA+fobia) hautematean ere datza.**

Honetarako, irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da. eta **indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste adierazpenak ematea ahalbidetzen duten faktoreen inguruan hausnarketa egiten du.**

Erreferente positiboak erakustea du helburu: ahaldundutako neska indartsuak eta indarkeria sexistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzeko diren mutil begirunetsuak, zeinek neskei bakarrik eragiten dion zerbait ez dela erakusten duten.

- Neskak: indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahalduntze eta autodefentsa jarreraren erakusten ditu.
- Mutilak: Desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten ditu, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
- Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusarazten du.

Indarkeria, hau sortzen duten faktoreak, eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, **kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio.**

Planteatzen diren **irtenbideak indibidualak zein kolektiboak** izan daitezke.



LANEN EZAUGARRI ETA BALDINTZAK

- Lan guztiak **ikus-entzunezko formatuan** aurkeztu beharko dira. Lanek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne.
- Lanek **lehiaketaren helburuari erantzun behar diote**. Aurkeztutako lanen edukiak helburuaren lorpenerako helburuarekin zerikusirik ez, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketa antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezake. Ebazpena parte hartzaileei jakinaraziko zaie.
- Proposamenak originalak izan beharko dute, **plagiatu, usurpatu edota kopiatu gabekoak**. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion autoretza probak eskatuko dira.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden **beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan**.
- Lanak **euskaraz, gazteleraz, elebietara zein bestelako hizkuntzaren baten** aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpigituluak badituzte.
- **Ikus-entzunezkoak azpigituluak eraman behar dituzte**. Azpigituluaren helburua irisgarritasun bermatzea da. Azpigituluak fondo beltzaren gainean eta hitzak zuriak izatea gomendatzen da.
- **Autoretza eskubideetatik aske dauden materialak erabiltzea gomendatzen dugu** (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Autoretza eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte hartzaileek beraien gain hartzen dute bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, egiaztatzen badugu jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.
- Bideoa webgunera igotzerako orduan **prozesu-fitxa** bete beharko da.



BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektu parte-hartzaileek Beldur Barik Jarrera islatu behar dute, hau da, indarkeria matxistaren adierazpen mota guztiak gainditzeko eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gaineratik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka, Beldur Barik Jarrera aldarrikatuz.

- **Originalitatea** mezuak adierazteko orduan.
- Begiraden irekiera **gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenak** identifikatzerako orduan.
- Aurkeztutako **irtenbidearen ikuspegia eta tonua** Beldur Barik Jarrerarekin bat egin behar du (humorea, erantzun positiboak etab.)
- Positiboki baloratuko da, **bai euskararen erabilera, bai azpigituluak sartzea gaztelerazko audioa duten obretan.**



NORK HAR DEZAKETE PARTE?

12–20 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.

- Parte hartzerako **hiru kategoria** daude:
 1. kategoria: 2010an eta 2011an jaiotakoak (2023an 12 edo 13 urte beteko dituztenak)
 2. kategoria: 2005 eta 2009 bitartean jaiotakoak (2023an 14–18 urte beteko dituztenak)
 3. kategoria: 2003 eta 2004 bitartean jaiotakoak (2023an 19–20 urte beteko dituztenak)

Talde-lan batean parte hartzen dutenen %40a gainerako %60a baino nagusiagoa izateagatik goiko kategoria batenak direnean, lana zuzenean hurrengo kategorian parte hartuko du.

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

I. eranskina edo II. eranskina beteta aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

- *I. Eranskina. Norbanakoen baimena: ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek Beldur Barik programan parte hartu dezaten.*
- *2. Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentro bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.*
- *Gaztelelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.*



NOLA AURKEZTU LANAK LEHIAKETARA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

1. Lanak hurrengo plataforma batera igoz: Youtube, Vimeo edo Instagram. Plataforma hauek sortzen duten **esteka** da aurkeztu behar dena. Gogoratu, Instagramera igotzekotan, bideoak modu publikoan argitaratu beharko dira.
2. Youtube edo Vimeora igotako **bideoen deskribapenean**, bideoaren **izenburua** erantsiko da, baita zein **udalerritatik** eta zein **kategoriatik** aurkezten den ere. **Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.**
3. Beldur Barik web orrialdean topatzen den **formularioa bete** ezazu, www.beldurbarik.eus helbidean. Formulario honetan aurretik ikus-entzutezko plataformara igotako bideoaren **esteka jarri**.
4. Formularioa osotu eta gero, izen ematea modu zuzenean burutu dela esaten duen mezua agertuko da.
5. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero programaren **idazkaritza teknikoak egiaztatuko du oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.**
6. Egiaztatu eta gero, idazkaritza teknikoak formularioan erraztutako emailera jakinarazpena bidaliko du, lehiaketan **onarpena edo ez-onarpena jakinaraziz.**
7. **Onartutako lanak web gunean publikatuko dira.**



LANAK AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea 2023ko **irailaren 19an irekiko da**, goizeko 08:00etan, eta 2023ko **azaroaren 10ean itxiko da**, gaueko 23:59etan.



SARIAK

- 1. Kategoriako saria: 400€
- 1. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- 2. Kategoriako saria: 400€
- 2. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- 3. Kategoriako saria: 400€
- 3. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- Ikus-entzunezko lan onenaren saria*: 300€
- Parte-hartzearen saria**: 300€

Goian aipatutako sariei dagokien atxikipen fiskala aplikatu zaie.

* Ikus-entzunezko lan onenaren saria Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen hiru kategorietako edozein lanari emango zaio.

** Parte-hartzearen saria herri-bozketan boto gehien lortu dituen lanari emango zaio, baldin eta lan hori Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badago.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute. Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriari zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.



LEHIAKETAREN EBAZPENA

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta berau osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak; aurreko edizioko irabazleak; sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako profesionaek eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hiru kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

Lan sarituak ezagutzera emango dira 2023ko abenduaren 1ean, ospatuko den Beldur Barik Topaketan.

HERRI BOZKAKETA

Epaimahaiak aldeztu aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, hain zuzen ere, Beldur Barik Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin (oinarrietako lehen puntuak jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozkaketara pasatuko diren lanak.

Parte hartzearen saria izendatzeko herri bozkaketa sistema **azaroaren 16an aktibatuko da**, goizeko 08:00etan. **Parte hartzeari saria irabaziko du azaroaren 19ko 23:59etan bozka gehien eskuratu dituen lanak.** Izan ere, egun eta ordu horretan, bozkaketa prozesua itxi egingo da.

Bozkaketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Instagram bidez.

Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena etab.), herria saria hutsik gera liteke.



LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte hartzaileek baimena ematen diote Beldur Barik Programari, lana erabiltzeko BB inguruko ikus-entzunezko zein inprimatutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, honako ekintza hauetara baimentzen dute programa:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan...)
- Lanak egokitzera proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak etab.).

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontakturako pertsonarekin.

Norbait ados ez badago klausula honekin, antolatzaileei idatziz jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du emandako datu pertsonalak Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako fitxategi automatizatu batean sartuko direla, datuen tratamendua egiteko. Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. Datu hauen erabilera bakarra Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa: www.euskadi.eus/proteccion-datos



ANTOLAKETA

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareareak eta EUDELek bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago:
www.beldurbarik.eus
info@beldurbarik.eus

Harremana:
688 666 105

I. ERANSKINA

AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.

LEHIAKETAN	PARTE	HARTZEN	DUEN	PROIEKTUAREN	IZENBURUA:
.....
.....andreak/jaunak,	adinez	nagusi,zenbakidun	NAN	duena,
eta.....jaunak/andreak,					adinez
nagusi,zenbakidun		NAN		duena,
helbidea.....n					
dutenak,.....telefono zenbakiarekin,					
.....adingabekoaren				(.....urte	dituena
eta.....e-maila duena)	ama / aita (edo tutore),	eta beraz,	legezko		ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU,

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure.....alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

BAIMENA EMATEN DUGU, BERARIAZ, askatasunez, espezifikoki, informatuta eta zalantzarik gabe Beldur Barik Lehiaketan parte hartzen duen gure alabari edo semeari eragiten dioten datu pertsonalen tratamenduari.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n

* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, bere 7. artikuluan xedatzen du pertsona adingabe baten datu pertsonalen tratamendua 14 urtetik gorakoa denean soilik oinarritu ahal izango dela bere baimenean. 14 urtetik beherako kasuan, guraso-agintearen edo tutoretzaren titularraren adostasuna baldin badago soilik izango da zilegia.

II. ERANSKINA

IKASTETXEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....

..... andreak / jaunak, adinez nagusi,
NANzenbakiarekin, helbidean, telefono-
zenbakia eta e-maila dituenak,
..... ikastetxearen edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta
adingabekoen familien edota lege-ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu.

III. PROZESU-FITXA

LANAREN IZENBURUA:	
KATEGORIA:	
UDALERRIA:	
LURRALDE HISTORIKOA:	

(Azpimarratu edo koloreztatu aukeratutako erantzuna)

1. Aurkezpen modalitatea:

Banakakoa Taldeka Olkastetxea Gaztelekua Beste bat

2. Partaide kopurua:

Neska kop.: ___ Mutil kop.: ___ Beste identitateak kop.: ___ Zeintzuk? (aukera):

3. Partaideen adinak:

4. Norbaiten laguntza jaso duzue lana egiteko?

Bai Nor/nortzuk? Ez

5. Zertan lagundu dizue?

Bideoaren grabaketa eta edizioa Ideiak eta edukia Beste batzuk

6. Noiz hasi zineten lana prestatzen?

Iraila Urria Azaroa

7. Beldur Barik buruzko formakuntzaren bat egin duzue?

Bai Ez

Zein? Gaia, lekua, ordu kopurua...

8. Beldur Barik-eko webgunera jo duzue informazioa edota ideien bila?

Bai

Ez

9. Beldur Barik-eko sare sozialetara jo duzue informazioa edota ideien bila?

Instagram

Facebook

Tiktok

Spotify

Ez

10. Nola baloratuko zenukete zuen esperientzia 1etaik 5era? (1 baxuena eta altuena dela)

1

2

3

4

5

11. Zer ikasi duzue esperientzia honetaz?



**BELDUR
BARIK
#JARRERA
2023**